## SAN MARKO MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

1. Mankomunitateko Batzarrak 2.012ko apirilaren 18ko bileran hartutako behin-behineko Erabakia jendaurrean jartzeko epea amaitu denez inolako erreklamaziorik aurkeztu gabe, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean ezarritakoari jarraiki behin betiko bihurtzen da San Marko Mankomunitateko Garbiguneen zerbitzua arautzen duen Araudia.

2. Aipatu Araudi arautzailearen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

3. Erabaki honen aurka, interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Salan, erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2012ko ekainaren 1a.—Ainhoa Intxaurrandieta Ezkurra, Lehendakaria. (5489)

## GARBIGUNEKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

### 1. ATALA
### ZERBITZUA ZEHAZTEA

*1. artikulua. Zerbitzuaren xedea.*

Araudi honen xedea San Markoko Mankomunitateko Garbiguneen zerbitzua arautzea da.

Zerbitzu honen bitartez erabiltzaileari hondakinak modu egokian botatzeko erraztasunak eman nahi zaizkio eta, bide batez, ondorengo helburuak lortu nahi dira:

— Hondakinak kontrolik gabe ez isurtzea.

— Etxean sortutako hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzea.

— Tratamendu finalista jaso behar duten hondakinen bolumena murriztea.

— Balio eman dakiekeen materialak behar bezala bereiztea.

— Hondakinetan dauden materialak berreskuratzea, zuzenean birziklatzeko.

— Ingurumenaren arloan sentsibilizazio eta prestakuntza-programak sustatzea.

— Berrerabilpena bultzatzea.

— Konpostajea sustatzea.

*2. artikulua. Garbiguneak ustiatzearen arduraduna.*

Garbiguneak ustiatzearen arduraduna San Markoko Mankomunitatea da. Hala, erakunde publiko horren kargura eta bere erantzunkizun nahiz zuzendaritzapean gauzatuko dira Garbiguneen ustiapen-lanak, Araudi honetan jasotzen diren arauekin bat.

Mankomunitateak administrazio-prozedura egokiaren bidez Garbiguneen ustiapen-zerbitzuaren enpresa esleipenduna izendatuko du edo bere langileekin kudeatuko ditu, egokitzat jotzen badu.

## MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

*Anuncio*

1.º De conformidad con lo establecido en la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez transcurrido el plazo de exposición al público del Acuerdo provisional adoptado por la Junta de la Mancomunidad en fecha 18 de abril de 2.012 sin que haya sido presentada reclamación alguna, se acuerda elevar a definitiva la aprobación del Reglamento regulador del servicio de los Garbigunes de la Mancomunidad de San Marcos.

2.º El texto íntegro del citado Reglamento regulador se publica en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y surtirá efectos a partir del día siguiente a la publicación.

3.º Contra el presente Acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de este Acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se publica, se podrá interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la publicación del presente anuncio.

Donostia-San Sebastián, a 1 de junio de 2012.—La Presidenta, Ainhoa Intxaurrandieta Ezkurra. (5489)

## REGLAMENTO DEL SERVICIO DE GARBIGUNE

### SECCIÓN 1.ª
### DETERMINACIÓN DEL SERVICIO

*Artículo 1. Objeto del servicio.*

Es objeto del presente Reglamento la regulación del servicio de los Garbigunes de la Mancomunidad de San Marcos.

Con este servicio se pretende dar facilidades al usuario para desprenderse de sus residuos de manera adecuada, en busca de los siguientes objetivos:

— Evitar el vertido incontrolado de residuos.

— Gestionar correctamente los residuos peligrosos generados en el hogar.

— Reducir el volumen de residuos a tratar o eliminación finalista.

— Realizar una correcta segregación de los materiales valorizables.

— Recuperar los materiales contenidos en los residuos para su reciclaje directo.

— Fomentar los programas de sensibilización y formación ambiental.

— Fomentar la reutilización.

— Fomentar el compostaje.

*Artículo 2. Responsable de explotación de los Garbigunes.*

El responsable de la explotación de los Garbigunes es la Mancomunidad de San Marcos, ente público a cuyo cargo y bajo cuya responsabilidad y dirección se ejecutarán los trabajos de explotación de los Garbigunes, de acuerdo con cuantos preceptos se recogen en el presente Reglamento.

La Mancomunidad designará, mediante el procedimiento administrativo oportuno, las empresas concesionarias del servicio de explotación de los Garbigunes o los gestionará mediante personal propio si así lo considerase oportuno.

*3. artikulua. Garbiguneen erabiltzaileak.*

Garbiguneak esklusiboki San Markoko Mankomunitateko udalerri kideetan (Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbilen) hondakinak sortzen dituzten herritar partikularrek erabiliko dituzte. Salbuespenez eskualdetik kanpoko erabiltzaileak onartuko dira, aldez aurretik Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek baimentzen badute, eta Araudiak xedatutako baldintzak guztiak betetzen badituzte.

Erabiltzeko Araudi hau eta Mankomunitatean hondakinak tratatzeko gainerako instalazioak arautzen dituzten legeak ez betetzeagatik zigorrak betetzeke ez dira izango.

*4. artikulua. Tasak.*

Garbiguneetako erabiltzaile-mota kontuan hartuta, zerbitzua doakoa izango da.

*5. artikulua. Hondakin onargarriak.*

Etxeetan sortutako hondakinak onartuko dira, hondakinen sortzaileak berak entregatzen baditu eta sortzailea herritar partikularra bada. Hondakinak sortzen dituenekiko pertsona desberdinak entregatu behar baditu, aldez aurretik Mankomunitateari jakinaraziko zaio idatziz bitarteko informatikoak erabiliz. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Mankomunitateak hondakinen sarrera baimendu edo ukatzeari ekingo dio.

Honako hondakin-motak onartuko dira:

— Etxeetan egindako obra txikien eraikuntza-hondakinak eta obra-hondarrak (uralita eta zuntz-zementzuko elementuak izan ezik).

— Plastiko birziklagarriak (polietilenozko bidoiak, film plastikoa, porexa).

— Birziklagarriak ez diren plastikoak (pertsianak).

— Tamaina handiko etxeko tresnak (koltxoiak, sofak, somierrak).

— Metalak eta txatarra.

— Kimaketa- eta lorezaintza- hondakinak.

— Egurrak (paletak, altzariak, kaxak, oholtzak).

— Beira laua (kristala).

— Kartoizko bilgarriak.

— Etxeko papera eta kartoia.

— Etxeko ontziak (plastikozkoak, metalezkoa eta brikak).

— Beira-ontziak.

— Ehunak.

— Auto eta motorretako pneumatikoak, hagun edo metalezko zatietatik bereiziak. Gehienez erabiltzaileko 5 unitate.

— Aparatu elektriko eta elektronikoak (ordenagailuak, telebistak, irratiak, telefonoak).

— Lerro zuriko etxetresna elektrikoak (garbigailuak, sukaldeko etxetresna elektrikoak).

— Jostailuak.

— Etxeko hondakin bereziak:

— Sukaldeko olio erabiliak (ontzi itxietan).

— Automobilgintzako olio erabiliak (ontzi itxietan). Kopuru onargarria erabiltzaileko eta hilabeteko 5 litrora mugatua dago.

— Metagailuak: Autoetako bateriak eta metagailuak orokorrean.

*Artículo 3. Usuarios de los Garbigunes.*

Los Garbigunes serán de uso exclusivo para los ciudadanos particulares que generen residuos en los municipios integrantes de la Mancomunidad de San Marcos (Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta y Usurbil). Podrán ser admitidos usuarios del exterior de la comarca con carácter excepcional, previa autorización de los Servicios Técnicos de la Mancomunidad, y cumpliendo con todas las condiciones establecidas en el presente Reglamento.

Para su utilización, será necesario no tener sanciones pendientes impuestas por incumplimiento del presente Reglamento y por aquellos otros que regulan el resto de instalaciones de tratamiento de residuos de la Mancomunidad.

*Artículo 4. Tasas.*

Considerando el tipo de usuario al que van dirigidos los Garbigunes, el servicio será gratuito.

*Artículo 5. Residuos admisibles.*

Se admitirán los residuos producidos a nivel domiciliario que sean entregados por el propio productor del residuo y éste sea un ciudadano particular. En el caso de que los residuos deban de ser entregados por una persona diferente a la generadora, este hecho deberá de ser puesto en conocimiento por escrito a medios informáticos ante la Mancomunidad por anticipado. En base a la documentación presentada, la mancomunidad procederá a la autorización o denegación de la entrada de los residuos.

Serán admitidos los siguientes tipos de residuos:

— Escombros de obras domiciliarias menores y restos de obras (excepto uralita y elementos de fibrocemento).

— Plásticos reciclables (bidones de polietileno, plástico film, porex).

— Plásticos no reciclables (persianas,).

— Enseres domésticos voluminosos (colchones, sofás, somieres,).

— Metales y chatarra.

— Poda y jardinería.

— Maderas (palets, muebles, cajas, tablas,).

— Vidrio plano (cristal).

— Embalajes de cartón.

— Papel y cartón domiciliario.

— Envases domésticos del hogar (plástico, metálicos y brik).

— Envases de vidrio.

— Textiles.

— Neumáticos de coche y moto, separadas de las llantas o partes metálicas. Máximo 5 unidades por usuario.

— Aparatos eléctricos y electrónicos (ordenadores, televisores, radios, teléfonos,).

— Electrodomésticos de línea blanca (lavadoras, electrodomésticos de cocina,).

— Juguetes.

— Residuos especiales del hogar:

— Aceite de cocina usado (en envase cerrado).

— Aceite usado de automoción (en envase cerrado). Se limita la cantidad admisible a 5 litros por usuario y mes.

— Acumuladores: Baterías de coches y acumuladores en general.

— Fluoreszenteak eta lanparak.

— Pilak.

— Inprimagailuetako toner-karkasak.

— CDak eta DVDak.

— Etxeko hondakin arriskutsuen hondarrak: Pintura-ontzi itxiak, bernizak, disolbatzaileak, kolak, fitosanitarioak, aerosolak.

Zerrenda honi, Lehendakaritzaren ebazpenaren bitartez, etorkizun hurbilean beharrezkotzat eta egokitzat jotzen diren hondakinak erants dakizkioke. Edozein aldaketa San Markoko Mankomunitateko web orria eta Garbiguneetan argitaratuko da.

Bilketaren eta tratamenduaren kudeaketak optimizatzeko, Mankomunitateak une oro erabaki dezake Garbigune guztietan onartuko ez den hondakin-mota.

*6. artikulua. Kopuruak eta mugak.*

Astean entregatutako hondakinen bolumena 2 m³-ra eta pisua 250 kg-ra mugatzen da; pisua 500 kg-koa da eraikuntza-hondakinen kasuan. Muga honetatik hurbil dauden entregak etengabe egiten direla hautematen bada, Mankomunitateak erabiltzaileari dokumentuz entregatutako dokumentuen jatorria eta profesionala ez dela justifikatzea eska diezaioke eta harrera berak kudeatzen dituen beste instalazio batzuetara desbidera dezake.

Muga hauek gainditzen dituen edozein deskargatarako edo bolumenaren ala tipologiarengatik ohiz kanpoko deskargetarako, aldez aurretik baimena lortu beharko da idatziz. Baimena San Markoko Mankomunitatean zerbitzuez arduratzen denak edo, hori izan ezean, zuzendari-kudeatzaileak eman beharko du.

Bakarrik 3.500 kilotik beherako gehieneko pisu baimendua (gpb) duten ibilgailuek deskargatzea utziko da.

*7. artikulua. Berrerabilpena.*

Garbiguneek erabiltzaileek entregatutako objektuak eta tresnak berrerabiltzera bideratutako zona izango dute. Bertan kontserbazio-egoerarengatik eta erabilerari erreparatuz, erabil daitezkeenak utziko dira.

Erabiltzaileek aske eta doan erabili ahal izango dituzte eta ezingo dira inolaz ere hirugarren pertsonen bidez saldu.

2. ATALA
ZERBITZUA ESKAINTZEKO MODUA

*8. artikulua. Hondakinak hartzeko ordutegia.*

Erabiltzaileei arreta eskaini eta hondakinak hartzeko ordutegiak eta egutegia zehaztuko dira, zerbitzuaren funtzionamendua arautzeko. Hori Lehendakaritzaren Dekretuaren bitartez egingo da. Ordutegiak une oro Mankomunitatearen web orrian eta Garbigune bakoitzaren sarreran eskura egongo dira.

Zehaztutako ordutegitik kanpo partikularrei ez zaie utziko Garbigunera sartzen, salbuespenezko egoeratan izan ezik eta, gainera, Mankomunitateak baimendu beharko ditu.

*9. artikulua. Sarrera kontrolatzea.*

Garbiguneen sarreran informazio-oholtza jarriko da eta ondorengoak zehaztuko dira:

— Instalazioaren izena, helbidea eta erakunde publiko jabea.

— Erakunde ustiatzailearen izena.

— Funtzionamendu-ordutegia.

— Harremanetarako telefono-zenbakia.

— Fluorescentes y lámparas.

— Pilas.

— Carcasas de toners de impresoras.

— CDs y DVDs.

— Resto de residuos peligrosos de origen doméstico: Envases cerrados de pinturas, barnices, disolventes, colas, fitosanitarios, aerosoles.

A esta lista, mediante resolución de presidencia, se podrán añadir cuantos residuos se considere necesario y apropiado en un futuro próximo. Cualquier modificación será anunciada en la página web de la Mancomunidad de San Marcos y en los Garbigunes.

Con la finalidad de optimizar las gestiones de recogida y tratamiento, la Mancomunidad podrá decidir en cada momento que algún tipo de residuo no se admita en la totalidad de los Garbigunes.

*Artículo 6. Cantidades y limitaciones.*

Se limita el volumen del residuo entregado a 2 m³ y el peso a 250 kg. por semana en general y 500 kg para el caso de escombros. En el caso de observarse entregas cercanas a este límite con carácter continuado, la Mancomunidad podrá requerir al usuario que justifique documentalmente la procedencia y el carácter no profesional de los residuos entregados y podrá desviar la recepción a otras instalaciones bajo su gestión.

Para cualquier descarga que supere estos límites o sea inusual por su volumen o tipología, se requerirá autorización previa y escrita por parte del técnico responsable de servicios de la Mancomunidad de San Marcos o el director-gerente en su ausencia.

Solo se permitirá la descarga a los vehículos de peso máximo autorizado (PMA) inferior a 3.500 kilos.

*Artículo 7. Reutilización.*

Los Garbigunes contarán con una zona destinada a la reutilización de objetos y enseres que sean entregados por los usuarios y que por su estado de conservación y uso todavía tengan la posibilidad de un nuevo uso.

Los usuarios podrán disponer libremente y con carácter gratuito de los mismos, que en ningún caso podrán ser vendidos a través de terceras personas.

SECCIÓN 2.ª
FORMA DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

*Artículo 8. Horario de recepción de los residuos.*

Se establecerán los horarios y calendario de recepción y atención a los usuarios al objeto de regular el funcionamiento del servicio mediante decreto de presidencia. Dichos horarios estarán en todo momento disponibles en la página web de la mancomunidad y en la entrada de cada uno de los Garbigunes.

No se permitirá el acceso a los Garbigunes a particulares fuera del horario establecido, salvo situaciones excepcionales previamente autorizadas por la Mancomunidad.

*Artículo 9. Control de acceso.*

A la entrada de los Garbigunes se colocará un tablero informativo en el cual se especificará:

— La denominación de la instalación, dirección y la Entidad pública propietaria.

— El nombre de la entidad explotadora.

— El horario de funcionamiento.

— Teléfono de contacto.

Baimendu gabeko pertsona guztientzat erabat debekatuta dago Garbiguneetan sartzea eta zigorra jaso dezakete. Instalazioak behar bezala erabiltzen ez dituzten pertsonei instalazioak uztea eska dakieke. Jokabide desegokiak behin eta berriz errepikatzen badira, Garbigunean sartzea uka dakieke.

Garbigunearekin zerikusia ez duen pertsona bertara iristen denean, ustiapenaz arduratzen diren langileek emandako azalpenak zorrozki bete beharko dituzte.

Garbiguneetara iristen diren bisitek langile prestatuen laguntza izango dute.

*10. artikulua. Entregak kontrolatzea. Zaintza.*

Garbigunerako sarrerak ustiapenaren langile arduradunek zainduko dituzte, horretarako zehaztutako orduetan.

Langileek erabiltzaileekiko honako aginpideak dituzte:

— Erabiltzaileak hondakinak botatzeko orduan aholkatzea.

— Garbiguneen instalazio guztiak kontserbazio-egoera eta ordena ezin hobean mantentzea.

— Onargarriak ez diren materialak bota nahi badira, debekatzea.

— Erabiltzaileen eta materialen onartze- eta sarrera-erregistroa eramatea.

— Ibilgailuaren matrikula, jatorria eta botatako hondakinen kopurua eta tipologia idaztea.

— Materialen irteeren eta jomugen erregistroa eramatea.

— Baimendua ez dagoen pertsonak hondakinak eraman edo bila ditzan saihestea.

*11. artikulula. Erabiltzailearen erantzukizuna eta betebeharrak.*

Une oro erabiltzaileak Garbiguneez arduratzen diren langileen azalpenak jarraituko ditu.

Zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko (hondakinaren jatorria, mota, gutxi gorabeherako kopuruak, identifikazio-datuak, etab.), langileei eskatutako informazioa emango zaie.

Modu ordenatuan materialak atxikitako edukiontzi bakoitzean botako ditu, horien izaerari erreparatuz.

Hondakinak deskargatzeko eragiketak moldatu egingo dira, gutxieneko eragozpenak sortzeko, bereziki, zarata sortzeari dagokionean.

Hondakinak botatzen direnean, beharrezkoa izanez gero, zona garbituko da.

Modu egokian eta behar bezalako abiadurarekin zirkulatuko du eta une oro sarbidea libre utziko da. Gainera, 3.500 kg-tik beherako GPB-ko ibilgailuak erabiliko dira.

Astean 2 m$^3$ edo 250 kg (500 kg eraikuntza-hondakinen kasuan) baino gehiago ez ditu botako, San Markoko Mankomunitateak idatziz berariaz baimentzen duenean izan ezik.

*12. artikulua. Pisua kontrolatzea.*

Hondakinak botatzera Garbiguneetara joaten diren ibilgailuei pisatze-kontrola egitea eska dakieke, bota behar diren hondakinen kopuruen eta tipologiaren arabera.

Arrazoi justifikatuak direla-eta, erabiltzaileek pisatzez arduratzen diren langileei baskularen kalibraketa-ziurtagiria eska diezaiekete. Hori enpresa homologatuak eman beharko du.

Queda terminantemente prohibido el acceso a los Garbigunes a toda aquella persona no autorizada, pudiendo ser objeto de sanción. Se podrá requerir el abandono de las instalaciones a todas aquellas personas que no hagan un uso adecuado de las instalaciones. En caso de repetirse conductas inadecuadas, se podrá denegar la entrada al Garbigune.

Cualquier persona ajena que acceda a los Garbigunes, deberá seguir puntualmente las indicaciones facilitadas por el personal responsable de la explotación del mismo.

Las visitas que accedan a los Garbigunes deberán estar acompañadas por personal cualificado del mismo.

*Artículo 10. Control de entrega. Vigilancia.*

La entrada a los Garbigunes estará vigilada por personal responsable de la explotación durante las horas establecidas para la misma.

Las atribuciones de dicho personal con respecto a los usuarios serán las siguientes:

— Asesorar al usuario en el depósito de los residuos.

— Mantener en orden y en perfecto estado de conservación toda la instalación de los Garbigunes.

— Prohibir el depósito de aquellos materiales no admisibles.

— Llevar un registro de admisión y entrada de usuarios y materiales.

— Anotar la matricula del vehículo, procedencia, cantidad y tipología del residuo depositado.

— Llevar un registro de salida de materiales y destinos.

— Evitar la retirada o rebusco de residuos por cualquier persona que no esté autorizada.

*Artículo 11. Responsabilidad y obligaciones del usuario.*

En todo momento, el usuario seguirá las indicaciones del personal encargado de los Garbigunes.

Facilitará al personal la información que le requiera para un buen funcionamiento del servicio (origen del residuo, tipo, cantidades aproximadas, datos de identificación, etc.).

Depositará los diversos materiales en cada uno de los contenedores asignados, atendiendo a la naturaleza de los mismos y de forma ordenada.

Las operaciones de descarga de los residuos se ajustarán para que se produzca el mínimo de molestias posibles, en particular a lo referente a la generación de ruido.

Una vez depositados los residuos procederá a la limpieza de la zona si fuese necesario.

Circulará de manera correcta y a una velocidad adecuada, dejando en todo momento libre el acceso, utilizando vehículos con capacidad inferior a 3.500 kg de PMA.

No depositará más de 2 m$^3$ o 250 kg de residuos a la semana (500 kg para el escombro), salvo autorización expresa por escrito de la Mancomunidad de San Marcos.

*Artículo 12. Control de pesada.*

Los vehículos que acudan a los Garbigunes para depositar residuos podrán ser requeridos para realizar el control de pesada, en función de la cantidad o tipología del residuo a depositar.

Los usuarios por causas justificadas podrán solicitar al personal responsable del pesaje el Certificado de calibración de la báscula extendido por empresa homologada.

3. ATALA
ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

*13. artikulua. Arau-hausteak.*

Araudi honek arautzen dituen arloei dagokienez, administrazio arau-hausteak edukia osatzen duten arauen kontrako egintzak edo ez-egiteak dira.

Arau-hauste oso larriak hurrengoak dira:

— Onargarriak ez diren hondakinak edo hondakinen nahasketak botatzea.

— Hondakinak Garbigunearen inguruan isurtzea, irekiera-ordutegiaren barruan edo hortik kanpo.

— Langile arduradunaren baimenik gabe Garbiguneetatik hondakinak erretiratzea.

Arau-hauste larriak honakoak dira:

— Hondakinen izaera, kopuru edo jatorriari buruz eskatutako informazioa ez eskuratzea.

— Behar bezala bota ez diren hondakinak ez kendu eta garbitu nahi izana.

— Zerbitzuaz arduratzen diren langileen azalpenenak eta aginduak ez betetzea.

— Ekipoetan edo instalazioetan kalteak apropos sortzea.

— Zabortegiko langile arduradunak errespeturik gabe tratatzea.

Arau-hauste arinak honakoak dira:

— Hondakinak dagokion edukiontzi edo tokietan ez botatzea.

— Araudi honek xedatutakoa urratzen duen edozein arau-hauste edo ez-egite.

*14. artikulua. Zigorrak.*

Zigorrak ezartzeko aginpidea San Markoko Mankomunitateko batzarburuarena izango da.

Aurreko artikuluan jasotako edozein arau-hauste isunarekin zigor daiteke. Hori hurrengo mailaketaren arabera zehaztuko da, arau-hausleak gauzak jatorrizko egoerara itzultzeko betebeharra alde batera utzi gabe. Horrez gain, arau-hausteak sortutako kalte-ordaina ordaindu beharko du. Xede horrez, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek aldez aurretik ebaluatuko dute.

Lehengoratze-eragiketak egiten ez badira, arau-hauslearen kargura eta kontura modu ordezkatzailean gauzatuko dira.

— Arau-hauste oso larriak: Denbora mugatuz Garbigunearen zerbitzua erabiltzen jarraitzeko debekua edota 600,01 €-tik 1.500,00 €-ra bitarteko isuna.

— Arau-hauste larriak: 150,01 €-tik 600,00 €-ra bitarteko isuna.

— Arau-hauste arinak: Ohartarazpena edota 150,00 €-ra bitarteko isuna.

Zigorrak aplikatzeko orduan, asmoa edo behin eta berriz egitea nahiz sortutako kalteen izaera kontutan hartuko dira.

*15. artikulua. Prozedura.*

Zigor-gaitasunaren prozedurak dagokion espedientea hastea eta izapidetzea eragingo du, aplikagarriak diren legezko eta araubidezko xedapenekin bat.

SECCIÓN 3.ª
INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 13. Infracciones.*

Constituyen infracción administrativa en relación con las materias que regula el presente Reglamento los actos u omisiones que contravengan las normas que integran su contenido.

Constituyen infracciones muy graves:

— El depósito de residuos no admisibles o la mezcla de residuos.

— Depositar el residuo en el exterior inmediato de los Garbigunes, tanto dentro como fuera del horario de apertura.

— Retirar residuos de los Garbigunes sin autorización del personal encargado.

Infracciones graves:

— La negativa a facilitar la información requerida sobre naturaleza, cantidad u origen de los residuos.

— La negativa a retirar y limpiar los residuos depositados indebidamente.

— Contravenir las órdenes e indicaciones del personal encargado del servicio.

— Causar daños intencionadamente en los equipos o instalaciones.

— Faltar al respeto al personal responsable del vertedero.

Infracciones leves:

— No depositar los residuos en sus contenedores o lugares correspondientes.

— Cualquier infracción u omisión que vulnere lo establecido en el presente Reglamento.

*Artículo. 14. Sanciones.*

La competencia para la imposición de sanciones será del Presidente de la Junta de la Mancomunidad de San Marcos.

Cada una de las infracciones recogidas en el artículo anterior podrá ser sancionada con una multa fijada de conformidad a la siguiente escala, sin perjuicio de la obligación del infractor de restablecer las cosas a su estado original y abonar las indemnizaciones a que hubiera dado lugar su infracción, previa evaluación por los Servicios Técnicos de la Mancomunidad.

En caso de que no se realicen las operaciones de reposición, se procederá a la ejecución subsidiaria por cuenta del infractor y a su costa.

— Infracciones muy graves: Prohibición de seguir usando el servicio de Garbigune por tiempo limitado y/o multa de 600,01 € a 1.500,00 €.

— Infracciones graves. Multa de 150,01 € a 600,00 €.

— Infracciones leves: Apercibimiento y/o multa de hasta 150,00 €.

En la aplicación de las sanciones se tendrá en cuenta la existencia de intencionalidad o reiteración y la naturaleza de los perjuicios causados.

*Artículo 15. Procedimiento.*

El procedimiento de la potestad sancionadora requerirá la incoación e instrucción del correspondiente expediente, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales y reglamentarias de aplicación.

*16. artikulua. Erantzukizuna.*

Nahiz eta Araudi honetan aurrez ikusitako edozein zigor jarri, zigortutakoa ez da zigor-erantzukizunaz edo erantzukizun zibilez salbuetsiko.

XEDAPEN OSAGARRIAK

*Lehenengo Xedapen Osagarria. Tokiko administrazioa.*

Mankomunitateko kide diren tokiko erakundeek, baita beren erakunde eta organismo autonomoek ere Garbiguneek emandako zerbitzuak erabili ahal izango dituzte, baina aldez aurretik lehendakaritzaren ebazpenez baimenduko zaie. Era berean, Mankomunitatearekin lankidetza-hitzarmena sinatuz, tokiko erakundeek instalazioak jarduera-mota guztietarako erabil ditzakete, horiekin hondakinak murrizten badira eta tratamenduaren kudeaketa hobetzen bada. Zenbait eskaera bateraezin elkartuz gero, lehentasuna Garbigunea eraikitzeko lursailak laga dituen udalak izango du.

*Bigarren Xedapen Osagarria. Beste lankidetza-hitzarmen batzuk.*

Halaber, San Markoko Mankomunitateak beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek Garbigunea erabiltzeko lankidetza-hitzarmenak sina ditzake, Mankomunitatean jarduten badute eta betiere ondorengoak betetzen badira:

a) Hitzarmenek Garbiguneen zerbitzua lermatzen ez badute. Izan ere, herritar partikularrek eta Mankomunitateko Udal kideek lehentasuna izango dute.

b) Hitzarmenek erakunde onuradunekiko antzeko erakundeak diskriminatzen ez badituzte.

*Artículo 16. Responsabilidad.*

La imposición de cualquier sanción prevista en el presente Reglamento no excluye la responsabilidad civil o penal en que pudiera incurrir el sancionado.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Disposición Adicional Primera. Administración local.*

Las entidades locales miembros de la Mancomunidad, sus diferentes entes y organismos autónomos podrán acceder a los servicios prestados en el Garbigune mediante autorización previa por resolución de presidencia. Así mismo, mediante convenios de colaboración con la mancomunidad, los entes locales podrán utilizar las instalaciones para todo tipo de actividades que avancen en una reducción de residuos y en una mejor gestión de su tratamiento. En el supuesto de concurrir varias solicitudes incompatibles, tendrán preferencia los ayuntamientos que hayan cedido los terrenos para la construcción del Garbigune.

*Disposición Adicional Segunda. Otros acuerdos de colaboración.*

La mancomunidad de San Marcos podrá, así mismo, establecer acuerdos de colaboración para uso del Garbigune con otras entidades, públicas y privadas, que operen en la mancomunidad, siempre y cuando:

a) Esos acuerdos no supongan de ninguna manera una merma al servicio que los Garbigunes han de dar preferentemente a ciudadanos particulares y ayuntamientos consorciados.

b) Esos acuerdos no sean considerados discriminatorios por otras entidades similares a la beneficiaria.